

**P**oema liburu bi batera ateratu ditu Erein argitaletxeak 2015ak azken ahokadak ematen ari zenean. Badirudi, azken aldian, pareka argitaratzearen moda zabaldu dela euskal argitalpen prentsean (Jaiotza eta Landabaso, Agirre eta Osoro, Elkarrekin, Atraxa eta Sarrionandia, Pamie-lak).

Ereinek, bada, antzeko poeta bi eman ditu plazara. Bata Juan Kruz Igerabideren (Aduna, 1956) 'Lainoa jenez' da, bestea Aintzane Galardiren (Oartzun, 1969) 'Mendafin usaineko iluntzeak'. Biak sinbolismoaren barnean koka ditzakegunak. Baina, era berean, desberdinak: barnera begiratu du Igerabidek; kanporantz, Galardik. Ezaguna zen euskal poeta nagusien artean, Lizardiren eta Lauaxetaren artean kasu, sinbolismoa praktika bi zituela, exotikoa (Galardi) eta barnekoa (Igerabide).

Juan Kruz Igerabideren poesia aspaldi ezagutzen dut, haren adiskidea ere banaiz; eta hori esan beharra daukat, zeren euskal letren munduan adiskideen lanez ez mintzatzea komenigarria dela esaten duten idazleak bai baitira, nahiz eta gero eurak izan araua betetzen ez dutenak. Doala oharra aurretik. Lan zabalaren egile dugu Igerabide, eta bere maisutari-



sun estetikoaren berri eman du 'Lainoa jenez' horretan. Euskarri gisa, liburuak euriaren metafora hartu du, eta poemak, sonata batean bagina bezala, metafora nagusi horren barietateak dira. Euria, lehen poeman esaten zai-gunez, zahartzaroaren barneratzen da, zahartzaroaren lainopetik begiratzen zaio etengabeko euriari, bizitzari. Zutabe bion inguruan eraiki du egileak liburu. zahartzaroa nostalgia bihurtu, hautzaroa amets; heriotza larri-dura, adiskideak bizi-lagun. Miresgarria da ikustea nola eusten dion poetak metafora bakarari liburu osoan, nola begiradak, kanpoan ikusten duen hori osatu duen barne mundua- ren argigarri.

Aberatsak dira kultura-aiipamenak; letren mundukoak, idazleak eta filosofoak (Emily Dickinson, Schopenhauer, Camus, Miran-de, Pessoa, Chandler, ez alferrik Lizardi, Vil-lon, Nietzsche), musika alorrekoak (Chopin, Rolling, Satie, Beethoven, Bach, Billie Holi-day, Ravel, Boulez), pinturaren arlokoak (Turner, Oteiza, Hokusai, Monet, Picasso, Hopper, Vermeer, Van Gogh, Rembrandt, Dix). Berria da zientzia-esparruari eman zaion tokia (Hardy matematikaria, Heisenberg fisikaria), eta zientziaren eta poesiaren artean poemak sortzeko ahalegina, hizkera zientifikoak hozte ozipina ekarriko balio bezala testuari. Ez da falta, berean ohi denez, umore fin sotila zen-

bait pasartetan. Bestelakoa da Aintzane Galardiren esio erabilera. Baina jar dezagun begia izen ruan: Mendafina: kolorea eta usaina; il-tzea: argia. Ikusia eta usaindua batera e-nak, sentsazioen munduan gaude, kanpo-jasotzen den errealitatearen adierazpide g- Egileak beti apaindu ditu bere liburuak: rrazkien bidez, hitzaren eta irudiaren art-zubia zabalduz.

Hiru liburu argitaratu ditu gaur arte G-dik eta hiruretan Euskal Herriz kanpo- turaren bat hartu du ardatz eta zigitu g-Oraingoan Marokoko giroa ekarri du or-deotara. Turista gisa agertu du bere bu-lehen poeman eta kanpotar baten begit-bada ere agertu duena, liburuak aurrera e-ahala, hitzak josiz eta jasoz, kanpoko m-dua barne unibertso bihurtu du Galardik, zaguna eta nitasuna elkartzu: «Guztiok d-gu zeharkatu gabeko itsasoak/ baina basar-tu sakonetan ibiltzen gara», adiskidetzere-n bezala hemengo eta hango literatur- puetan, hango bizitza eta hemengo oroi-na gaietan.

Igerabide eta Galardi: sinbolota hurbiltz poesia mota bi.

## Azalaren azpikoa

■ JAVIER ROJO

Jon Arretxe, nire ustez, derrigorrezko idazle bihurtzen ari zaigu. Garai batean amaigabeko nerabezaroen bizi ziren pertsonaia batzuen bizimodua kontatzen egin zen famatu, eta arrakasta izugarria lortu zuen gure merkatu berezian. Idazle serioagoaren papera beste idazlan batzuetarako uzten zuen, bidaia liburu- ruetarako adibidez. Baina idazle honek hirugarren alderdi bat ere erakutsi digu nobela beltzaren generoan barneratu denean. Azken alderdi honi dagokio 'Estolda jolasak' izenbu- ruko nobela. Protagonista, alor honetako aurreko nobeletan bezala, Mahamoud Toure, Burkina-Fasokoa, Bilbon ahal duen moduan bere bizimodua ateratu nahi duen afrikarra. Kasu honetan, istu- lutan sartu delarik, Afrikara deportatzen dute eta Malin amaitzen du. Emakumeen trafikoa aritzen den mafia nigeriararekin egin du topo, eta horrek eramango du odol isurte amaiezina dirudien gertakarien segida batera.

Jon Arretxek bere literatur lan- gintzaren hasieretan umorea zuen baliabide nagusietako bat, eta irakur- laren bat horren bila baldin bada- doa idazlan honetan, jakin behar du umorea dagoeneko desagertu dela. Kontatzen dituen gauzak ez dira bromatan hartzeko, eta idazleak jakin du bere tonua gai hauei egoki-

tzen. Hilketak, mendekuak, jazarpenak... horrelako osagaiek osatzen dute argumentua. Baina argumentuaren azaleko anekdotan kontatzen direnak alde batera utzita (azaleko anekdota horri erreparatuz gero liburuaren abentura-nobela interesgarria da), badaude beste alderdi batzuk, idazlea, hasieran komentatu dudana bezala, derrigorrezko bihurtzera dararatenak. Lehenengo eta behin, 'bestearren' presentzia. Protagonista Bilbon bizi den afrikarra izanik, gure ondoan ia konturatu gabe beste mundu batzuk ere badaudela erakusten digu idazleak. Eta beste mundu horiek gobernatzeko beste arau batzuk daude, bizi- rautea lege baita halako munduan bizi direnentzat. Pertsonaia bereizten dituen ez da egiten dutena, denek, alde edo moldez, eskuak odol- ez zikinduta dauzkate-eta, baizik- eta egiten dutenaren motibazioa, eta alor honetan kontrajarren nabarmen dago, leialtasuna eta dirua aurrez aurre jarrita baitaude. Eta bitartean bertokoak edo ez dira ente- ratzen zer gertatzen den edo, anaia nagusiak izango balira (poliziak alegia), beren interesen arabera erabili nahi dituzte estoldetan mugitzen direnak.



**ESTOLDA JOLASAK**

Egilea: Jon Arretxe. Eleberria. Argitaletxea: Erein. 208 orr. Donostia, 2015. Salneurria: 18 euro

Hiriak azal ikusgarriaren azpian bestelako aurpegia du eta Jon Arretxek oso ondo jakin du mundu hori isla- tzen.

## LABUR-LABUR

### Springsteen Donostiara dator maiatzean

P.S.G.

Bruce Springsteen eta The E Street Band taldea zuzenean arituko dira maiatzaren 17an Donostiako Anoeta estadioan. The River Tour 2016 biraren baitan European eskainiko duten kontzertuetako bat izango da Donostiakoa. Sarrerak martxoaren 4an jarriko dira salgai, Interneten, Doctor Music eta Get In antolatzaileek ohar baten bidez jakinarazi dutenez. Bi enpresok azaldutakoaren arabera, kontzertua eserita ikusteko sarrerak 65 eta 115 euro arteko prezioan erosi ahaliko dira, eta emanaldia pistan zutik ikustekoak 80 euroan ('banaketa gustak' gehitu behar zaizkie prezio horiei), eta 6 txartel hartu ahaliko dira erosketari bakoitzeko. doctormusic.com, ticketmaster.es, fnac.es, carrefour.es eta halconviajes.com plataformen bidez salduko dituzte txartelak, eta esku- ratzeko beste biderik ez erabiltzea gomendatu dute kontzertuaren arduradunek, iruzur baten biktima izateko arriskua bailegoko. Espainiako Estatuan beste bi kontzertu emango ditu Springsteenek: Bartzelonako



Irudian, Bruce Springsteen.

Camp Noun izango da, maiatzaren 14an Madrilgo Santiago Bernabeu hileren 21 Bira honetako emanaldietan, The River' 1980ko birako kontzertu mitikoak eta nahi dituzte gogora Springsteenek eta E Street Bandeko musikariek.

### Zortzi euskal artistaren lana, Madrilgo Euskal Etxean ikusgai

Madrilgo Euskal Etxeak zortzi euskal artistaren lanak jarri ditu ikusgai, otsailaren 29ra arte. Artista hauei lanak bildu dituzte: José Manuel Abalos, María Alonso Paez, Martxe Arana, Jokin Arman, Iñigo Manterola, Ana María Marín, Javier Sagarazu eta Xabier Soubelet. Erakusketaren antolatzaileek ohar batean azaldu dutenez, "Abalosen pinturari itsa- soaren edertasun indartsua ikus daiteke, Alon- sok mundu oniriko batera eramaten gaitu, Aranak naturala irudikatzen duenaren erromantizismoa islatzen du, Armanek unibertso- aren kultura omentzen du eta Manterolak ba- retasun urdin deskribaezina irudikatzen du".

### Louis Bourgeois 'gelak' Guggenheimen ikusgai

Bilboko Guggenheim museoak Louis Bourgeois (1911-2010) bere ibilbideko b- markadatan zehar garatu zituen 'gelak', e- tura landuen, erakusgarri batzuk aurkez- ditu martxoaren 18tik aurrera. 'Louise Bourgeois. Izatearen egiturak: gelak' erakus- irailaren 4ra arte egongo da zabalik, Bill zentrotik jakinarazi dutenez. Haus der K- Municheko museoak eta Guggenheim se- soak elkarlanean antolatu duten bild- ren bidez, publikoak 28 'gela' edo arkite- ra espazio ezagutu ahaliko ditu. Museo- k duradunek azaldu dituzte, espazio bi- tzak mikrokosmos jakin bat islatzen di-

## SALDUENAK

- FIKZIOA**
- 1 Zu**  
Anjel Lertxundi. Erein
- 2 Beti oporretan**  
Harkaitz Cano. Susa
- 3 Isilpean gordea**  
Toti Martínez de Lezea. Erein
- 4 Lili eta biok**  
Ramon Saizarbitoria. Erein
- 5 12etan, bermuta**  
Jasone Osoro Igartua. Elkar

- EZ FIKZIOA**
- 1 Ekarki armak**  
Imanol Murua. Elkar-Berria
- 2 Lapur banden etika ala politika**  
Joseba Sarrionandia. Pamie-la
- 3 ETA, historia irudietan (1951-1978)**  
Batzuk. Txalaparta
- 4 Sozialismoaren Historia Labur Bat**  
Gorka Etxebarria. GITE-IPES
- 5 Independentzia helburu**  
Andoni Olariaga. Txalaparta